## Partimos del área

recreativa de Zumeltza **(1)**, tomando la carretera en dirección a Dima. Caminaremos por la carretera teniendo a nuestra derecha la campa de Zumeltza. En el punto donde la carretera comienza a descender, nos encontramos con dos pistas, una a la derecha y otra a la izquierda, de las cuales tomaremos esta última, la que se dirige hacia Barazar. Nada más tomar la pista franqueamos una parrilla metálica.

A los 25' del punto de partida, llegaremos a las proximidades de la txabola de Munitxakorta. A partir de aquí, nos encontraremos al cabo de 10' caminando por la ladera de Eskortetakogana. Inmediatamente después, a unos 5', llegaremos al lugar donde el camino discurre entre unas cercas de alambre: estamos en Altunpe o Altungo Landa.

A los 40' de caminata, y tras dejar atrás unos castaños jóvenes a uno y otro lado del camino, nos encontramos con un camino carril, el que se dirige hacia Makastui, que nace a la derecha del camino que nos ha conducido hasta aquí. Seguiremos por la pista, ganando altura por un camino en zig-zag y teniendo enseguida a la vista, a nuestra derecha, la pista que se dirige a Altun y de Kastillokogana. Dejaremos la pista que se dirige a Altun para continuar por el mismo camino que nos ha traído hasta aquí. A continuación, la hondonada de Txabolazahar y un poco más adelante el rellano de Landaberde, donde se encuentra, en la barranca de la parte inferior, el sel de Mantxitxikorta. Prosiguiendo por este camino, la próxima hondonada orográfica es Kastilloste. Avanzando por este camino, habremos invertido unos 20' desde la campa de Altun hasta aquí y, casi sin darnos cuenta, llegamos a una amplia pradera, Munarritxikieta, **(2)** donde vemos la pista que, procedente de las cumbres de Altun y de Kastillo viene a parar aquí a nuestra derecha. En este punto dejaremos a un lado la pista que hemos tomado en Zumeltza y nos adentraremos en la campa para tomar otra pista que avistamos a la izquierda.

Prosiguiendo por la pista llegaremos a un lugar donde se encuentra un prefabricado, una especie de contenedor, y una cancilla o puerta de entrada a los prados: se trata de Kortailun, el alto que se encuentra al sudoste de la campa de Zumeltza. Si extendemos la vista desde este punto hacia Zumeltza, veremos el barranco de Errekasiku. Llevamos ya 1 h. 15' desde que iniciamos la ruta. Siguiendo adelante, en 3 ó 4', llegaremos a Errekasikugana. A nuestra derecha el paraje de Elormendi y, un poco más adelante, cerrada con cancilla, la pista que baja al parque recreativo de Zumeltza.

Continuaremos nuestro camino y, a unos 12', se nos presentará otra pista por la derecha en nuestra misma dirección, la que desciende de Elormendi, a cuya vera se encuentra una txabola. Continuando hacia delante, tenemos las campas de Larraluze. Atravesamos el arroyuelo que desciende de Elormendi y salimos a otra pista: a la zona de Presagotxieta. Si en este cruce optáramos por la derecha, nos encontraríamos con unas cisternas construidas en la posguerra. Pero continuaremos por la izquierda, es decir, seguimos hacia delante. Pronto, se nos presenta otra pista por la derecha y, un poco más adelante, otra más. A continuación, una parrilla para impedir el paso del ganado, el arroyo Montebideo, y enseguida un nuevo cruce. **(3)** Si en el mencionado cruce siguiéramos por la derecha, saldríamos al campo de fútbol de Zelaieta, al parque recreativo y a la carretera Otxandio-Ubide. De optar por la izquierda, al caserío Astola. Pero seguiremos hacia delante, tomando la dirección en la que el camino empieza a subir. Y, caminando a lo largo de los linde de los municipios de Dima y Otxandio, separados por una alambrada, llegaremos enseguida a Azpikoarri, **(4)** que se halla en la ladera de Gorostartegana, donde encontremos dos hayas y un hermoso y sorprendente mojón de piedra arenisca.

Continuando desde este lugar hacia delante, llegamos en 10' a la carretera de Dima-Otxandio. Han transcurrido 2h. 25' desde el punto de partida. Tomamos ahora la pista que se nos presenta de frente, al otro lado de la carretera, **(5)** y seguimos por este camino hasta llegar a kurutzeganeta. Aún cuando esta pista, que nos ha conducido hasta aquí continua adelante dando un giro de 90o a la derecha; nosotros seguiremos al frente. A la derecha de este camino, el alto de Azerizulueta. Así pues, continuando hacia delante en la dirección que hemos tomado en el mencionado cruce, seguimos hasta avistar a nuestra derecha una nueva pista empedrada; Pagonagusi. **(6)** Esta pista es la que viene de las escuelas de Anteparaluzeta, y a la derecha tenemos Telleriaburu y a la izquierda las alturas de Agarrekorta y Abeletxe. A la izquierda, asimismo, el camino carretero que lleva a Montebideo, cubierto de maleza. Caminaremos hacia delante en la dirección que traemos, hasta dar, al cabo de unos 15', con Aretxbakar.

Aretxbakar es el prado con el que nos encontramos de frente. La hondonada de la derecha es la llamada Gatzaninarroko Arroa, mientras que a la izquierda tenemos el barranco de Kortazuri. Tenemos que dirigirnos, tomando hacia la izquierda a la pista que desciende de Urkiola y que avistamos frente a nosotros a la derecha continuando por la pista, poco después de habernos adentrado en un pinar joven, la pista se bifurca en dos direcciones, de las cuales optaremos por la de la derecha hasta dar con el lugar denominado Urtxirrioko Txarkoa. Aquí giramos a la izquierda y más adelante de nuevo hacia la izquierda hasta llegar el caserío Arkaola. **(7)** Ha transcurrido aproximadamente 30' desde que salimos de Aretxbakar.

A la altura del caserío Arkaola, descendemos hacia Zumeltza por la pista empedrada, siguiendo en todo momento esta pista principal, que nos conducirá, a través de la campa de Arkaola a Zumeltza y al punto de partida. Serán otros 25' desde Arkaola y algo más de 3h. 30' desde que iniciamos el camino en este mismo punto de Zumeltza, para recorrer un total de unos 14 km.









# dima

zumeltza
munarri-
txikieta
azpikoarri
aretxbakar
zumeltza

**PR-BI-44**

DIMA
Dimako Udala

Laratzu Taldea




**PR-BI-44**

| guztia - total | 14 km | 210' |
|---|---|---|

# Zumeltzako atseden

parketik **(1)** aterako gara, Dimaranzko norabidean errepidea hartuz. Errepidean abiatuz, eskuinaldean Zumeltzako zelaia. Errepideak beheranzko joera hartzen duen une berean, eskuin eta ezker bi pista edo aldaia dauzkagu; guk ezkerrekoa, Barazar aldera zuzentzen dena hartuko dugu. Pista hartu eta berehala, ganaduari pasoa oztopatzeko burnizo parrila bat igaroko dugu, Zumeltzako zelaia eta Saibe aldea atzean utziaz. Eskuinaldean otaz betetako gunea: Arbela deritzona.

Irteera puntutik 25', Munitxagana azpian, eta erabat alerzez inguratuta dagoen Munitxakorta ardi txabolaren parean izango gara, eta hemendik, bideak erakusten digun aldapa leuntxoan zehar aurrera eginez, 10' Eskortetako-ganaren maldan zehar izango gara, pistaren ezker edo behekaldean ardien eskortak zeuden beste garaietan, eta berehala, 5', ezker eskuin alanbrezko hesiz itxita bidea igarotzen dan gunera, Altunpe edo Altungo Landara.

Jada, 40' gure oinetan eta alboetako gaztaiondo gazteak atzean utziz, puntu honetaraino ekarri gaituen bidean eskuinetik sortzen dan burdibidea Makaztui aldera doana dugu; dana dala guk etorri pistatik jarraituko dugu, bideak egiten duen zig-zaga eta aldapa igaroz eta, ia berehala, eskuinetik Altun eta Kastilloko tontorrera doan aldaia aurrikusiko dugularik. Orain ere, Altunerako aldaia aloban utziz, aurrera egingo dugu honaino ekarri gaituen ondo harritutako bide berberetik. Segidan Txabola-zaharko sakona eta aurreratxoago Landaberdeko zelaigunea eta beronen azpialdeko trokan Mantxitxikortako kortabasoa. Bidean aurrera eginez, mendiak egiten duen hurrengo sakona, Kastilloste. Gune honetatik, trokarantz begiratuz, ezkerraldean Porruetako ezpaldea eta bestealdean, arroaren eskuinaldean, Garikorta. Ibilien, bidean aurrera egin ahala, Altungo landatik honaino 20' inguru pasa dira, eta konturatu barik garbiune zabal batera helduko gara, Munarritxikieta, **(2)** eskuinetik Altun eta Kastilloko tontorretik datorren aldaia elkartu zaigularik. Puntu honetan, adi! Zumeltzan hartu dugun pista albo batera utziaz, ezkerretarantz, zelaian sartuko gara, aurrikusten dugun pista hartuz. Lurrezko aldaia honetatik eta aldapa-behera hasten den puntutik, aurrez aurre eta eskuinaldean Idemoltzoko larreak; ezkerraldean Garikorta Txikerra, lehen tontorra, eta Garikorta.

Aldaian segiz, kontenedore gisako prefabrikatu bat eta larretan sartzeko lata edo sarrera dagoen gunera helduko gara: Kortailun, Zumeltzako zelaiaren hego mendebaldera dagoen gaina. Puntu hontatik Zumeltzara begiratuz, Errekasikuko arroa, bertan ikaragarrizko pagodia ei zan 1945-48 urteetan botea. Idemoltzo, Kortailun ingurune honetan, udalak errematean ematen zituen ideak azkena 60ko hamarkadan 4.500 pezetatan suertatu ei zan, "ide-erremata" hartzen zuenak, sortak egin eta saldu egiten zituelarik ondoren. Ordu bat eta 15' daramagu irten garenetik; aurrera segiz, hiruzpalau minututan, Errekasikugana joko dugu, eskuinaldean Elormendi aldea eta lasterrera ezkerrean lata batez itxita Zumeltzako atseden parkera doan aldaia. Guk aurrera egingo dugu, 20' eskuinetik beste lurrezko pista bat sartuko zaigu gure norabidean, Elormenditik datorrena; pista berean, gerrostean egindako txabola gertu gertuan. Aurrera eginez, gure ezkerraldean Larraluzeko landak. Elormeditik datorren erreka-txoa pasatuz beste aldaia batera irtengo gara: Presagotxieta aldea. Bidegurutze honetan eskuinera egingo bagenu, gerrostean egindako su arriskuetarako patin batzuekin egingo genuke topo. Dana dala, guk ezkerretarantz, hau da, aurrera egingo dugu. Lasterrera, eskuinetik beste aldaia edo pista bat sartuko zaigu, aurreratxoago beste bata eta, berehala, animaliei pasoa oztopatzeko parrila; segidan, Montebideo erreka (Dimako urak Legutioko Urtegi-Zadorra-Ebroa isuritzen dituen erreka), eta berehala bidegurutze bat. **(3)**



Bidegurutze honetan eskuinerantz jarraituz Zelaietako futbol zelaia, atseden parkera eta Otxando-Ubide errepidera aterako ginake, aldiz ezkerretara eginez Astola baserrira. Baina guk zuzen eta aurrera, bideak goranzko joera hartzen duen norabideari ekingo diogu. Berehala, alanbrezko hesiz itxita eta Otxandio eta Dimako udalerrien mugan zehar abiatuz Azpikoarrira helduko gara, **(4)** Goroztarteganaren magalean, bi pagoren itzalean, ebaharrizko munarri ikaragarria dagoen kokagunea. Irten garenetik hamar bat kilometro eta 2 ordu eta 15' inguru igaro dira. Puntu honetatik bidean aurrera eginez, hamar minututan Dima-Otxandio errepidera helduko gara.

Irteera puntutik 2 ordu eta 25' inguru pasatu dira. Errepidearen aurrez aurre eta beste aldean sortzen dan aldaia hartuko dugu, **(5)** bide honetatik jarraituz Kurutzeganetara helduko garelarik. Gune honetaraino ekarri gaituen, ondo harriztatutako aldaiak, nahiz 90o eskuinera eginez jarraitzen duen, guk zuzen egingo dugu aurrera antzinako burdibidearen aztarnak finkatuz. Bide honen eskuinaldean Azerizuluetako gana. Beraz arestian aipatu bidegurutzean hartutako norabidean zuzen eginez aurrera, eskuinetik harrizko pista berri bat gehitzen zaigula ikusi arte jarraituko dugu; Pagonausi. **(6)** Hemen, eskuinetik sartu zaigun pista hori Anteparaluzetako eskoletatik jatorkun aldaia da, honen eskuinaldean Telleriaburu eta ezkerraldean Agarrekorta eta Abeletxeko ganak. Puntu honetatik ezkerretara Montebideora doan burdibidea, sasiz itxita. Esan bezala, aurrera egingo dugu ekarri dugun norabidean eta zuzen, 15 bat minututan Aretxbakar jo arte.

Aurrez aurre aurkitu dugun belardi, larre edo garbigunea dugu Artexbakar. Eskuinaldeko sakona Gatzaminarroko arroa izenaz ezagutua eta ezkerraldean Kortazuriko barrankue. Guk aurrez aurre eta eskuinaldetik aurrikusten dugun Urkiolatik datorren aldaia jo behar dugu, ezkerrerantz hartuz. Pista honetatik jarraituz gure eskuinaldean Arantzatzuetako mendizerra. Aldaian segiz, pinudi gazte batetan sartu eta lasterrera, pista bi norabidetan zabaltzen da, guk eskuinekoa hartuko dugularik Urtxirrioko txarkoa jo arte. Ordu erdi inguru igaro da Aretxbakarren atera garenetik.

Arkaola baserrian Saibe **(7)** eta bertara doan pista atzean utziz, Zumeltza aldera, beherantz zuzenduko gara harriztatuko pistan zehar eta beti aldaia negusi honi jarraituz, beronek eramango baikaitu Arkaolako zelaitik zehar Zumeltza eta helmuga-abiapuntura. 25' Arkaolatik eta 3 ordu eta 30' pasatxo irten garenetik, 14 km. inguru egin ditugularik.

